


colectivo
ukitu
kolektiboa

CORTAR,
PEGAR,
INTUIR



MOZTU,
ITSATSI,
SUMATU



UKITU

L TOCAR, PALPAR

L ser contiguo - a

L conmover, afectar

L tratar, tocar

L cambiar levemente

L Toque / modificación

manoslar

El colectivo ukitu está formado por Elena Olave y Pedro Merchán Mateos (y todas las personas que se cruzan en su camino). Inicialmente ukitu buscaba entenderse como un lugar, pero también como una metodología basada en el archivo, en su intervención y creación. Concebimos la estancia en el Centro Huarte como un primer gesto con el que poder imaginar la realidad potencial de este proyecto y sus derivas.

Partimos de la inquietud por pensar la presencia de los públicos cuir dentro del contexto artístico contemporáneo. Si la institución-arte ha servido hasta ahora para mantener y preservar el orden cisheteronormativo, patriarcal y occidental, ¿cómo podíamos nosotros existir en esta institución? ¿Cuál era nuestro papel como investigadorxs y como público? Para responder a estas cuestiones nos vimos en la necesidad de pensar en cómo definir aquello a lo que nombramos público cuir. Conscientes de la imposibilidad de una definición categórica y acotada de lo cuir, pensamos, ¿cuándo y cómo hemos existido como público cuir? La existencia del público cuir no es algo uniforme, es algo que a veces aparece desdoblado el espacio, sus usos y sus tiempos.

A veces nos aparecíamos, y nos reconocíamos, nos volvíamos público y nos volvíamos cuir. Y entonces, asumiendo la responsabilidad de que el comisariado genera públicos, nos preguntamos cómo hacer de los espacios institucionales lugares propensos a estas apariciones.

La definición que dábamos a lo cuir fue cambiando durante las 8 semanas de investigación, sirviendo tal cambio de pegamento entre ideas, imágenes, objetos y personas que iban apareciendo en nuestro espacio de trabajo. Todas estas mediante el paso del tiempo, de gestos y movimientos conscientes; fueron ordenándose, mezclándose, hibridándose y mutando, torciéndose, pervirtiéndose a veces, creando como consecuencia una especie de red en la que cualquiera en cualquier momento tenía la posibilidad de meter mano, de colarse, de atravesar el rol del comisario.

Entre todas estas acciones, aparecieron las dudas, las preguntas sobre cómo investigar y porqué hacerlo sobre el comisariado y los públicos cuir, sabiéndonos la mayor parte del tiempo como público más que como profesionales, curadoras, o portadoras de conocimiento. Esto hizo no solo que tuviésemos que redefinir, aunque fuese para un uso personal, cada palabra elegida (okuparla, introducirnos en ella), sino también cuestionar constantemente el camino a recorrer y la lectura realizada.

Egonaldian zehar okupatu genuen espazioko pareta zuria irudi eta berbek bete aurretik, nolabait, ikerketa prozesua jada abiarazita zegoela esan daiteke. Halere, paretan irudiak eta kontzeptuak itsatsi, eta zuhaitz dendritikoaren forma hartu zuen mapa sortu ahala, guztiz argi ikusten ez bagenuen ere, erakusketa batean bilakatuko zen germena elikatzen hasia zen.

Mapa deritzogun hau periferia-gorputzak-kuir-ausentzia-artxibo hitz-multzoen oinarrian hedatu eta mutatu joan zen 8 astez. Bost berba hauek abiapuntu harturik, hainbat esaldi, hitz solte, argazki, artelan, material eta objektu agertzen hasi ziren, eta guk hauek hartu eta elkarren arteko loturak sortzen hasi ginen.

Ikerketa prozesuan zehar metodologia zehatzik gabe, intuizioz zein ausaz aukeratutako irakurketak egitea erabaki genuen, patxadaz eta beharrezkoa genuen denbora tarteak hartuz. Irakurketa prozesu horretan, ideia edo galdera batzuk buruan bagenituen arren, ez genuen helburu zehatzik, eta horrek agerraldi polit bezain hunkigarriak eragin zituen.

Egonaldiko ikerketa prozesua bukatu ostean ere, zorian oinarritutako metodologia erabili dugu hainbat gauzetarako. Ikerketa prozesuan zoriak izan duen garrantzia agerikoa da, eta horrenbestez, azpimarratu beharrezkoa. Alderdi horrek, beste batzuekin batera, ikerketa prozesu afektibo, gozagarri eta gorpuztuago bat eragin du, gertaturiko desorientazio egoerak baliatuz eta gure desira desordenatuen kontzientzia hartuz.



ABRIR EL
ESPECTRO
DE LO
ARCHIVABLE

tiempo
mir

NO TENGO TIEMPO
PARA HACER
COSAS CON PRISA

Y SI NOS
NEGAMOS
AL

PASADO Y
AL FUTURO
???

CONTACTO
CON EL
MUNDO

El resultado de las ocho semanas de investigación fue *8 semanas: intimidades torcidas*, una exposición que apenas duró 24 horas que reunía las imágenes, preguntas, regalos, deseos, recuerdos y personas que transitaron ukitu durante esas ocho semanas. El siguiente texto abría el recorrido por el espacio.

ZORTZI ASTE, INTIMITATE BIHURRITUAK

Artxiboa, erakusketa, saiakera, mapa, intimitate publikoa, hondar bilketa, soberakinak, gehiegikeriak, lapurtutako, mailegaturiko edo testuinguru bako gauza, idatzi, eta desiratutako irakurketek osatzen dute Intimitate bihurrituak. 24 orduren buruan bukatutzat emango den konspirazio hau beste espazio batzuetara lekualdatu daiteke gero: gure logeletara, agian? geure egongela partekatuetara, akaso? Ezin dugu jakin.

Zaila da deskribatzen 8 asteetan zehar apurka, era ibiltarian, eta ausaz gertatu izan den guztia. Izan ere, ez da lan makala adieraztea hitz bidez irudi-kontzeptu, irudi-irudi, edo bizipen-irudi-kontzeptuen artean sortutako harremanak, zeinak, une aproposenean, errebelazioak bailiran agertu diren. Horregatik, ezin daiteke esan espazio hau deskriptiboa denik, bizitua, okupatua eta okupagarria baizik. Beraz, hau ez da prozesu baten emaitza, intimitatea eraikitzeo esperientzia bera ezpada. Aipatutako intimitatea prekaritatzat har dezakegu, alde batetik ez delako denbora luzez mantendu behar, eta bestetik, arraroa suerta daitekeelako, espazio hibrido, publiko eta pribatu batean agertzen delarik. Halaxe, gure lan-eremua, geure subjektibitatea eraikitzeo toki bilakatu da, etxea eraiki eta elkar babesteko bestelako leku bat. Behin-behinekotasuna eta desplazamendua (nomade nozioarekin loturikoa) intimitate kuirrekin lotutako kontzeptu gisa agertu zaizkigu. Agerpen hauek, era berean, bideratu gaituzte geure buruei

OCHO SEMANAS, INTIMIDADES TORCIDAS

Intimidades torcidas es un archivo, una exposición, un ensayo, un mapa, una intimidad pública, una reunión de desechos, restos, excesos, cosas robadas, descontextualizadas, préstamos, escrituras, lecturas tangentes y deseadas, una conspiración que expirará en 24 horas para mudarse a otro lugar, ¿a nuestra habitación? ¿A nuestro salón compartido?

Describir todo lo que ha ido pasando durante ocho semanas, de manera lenta, errática y azarosa muchas veces, es difícil, sobre todo por el hecho de tener que poner en palabras relaciones entre imágenes y conceptos o imágenes-imágenes, o vivencias-imágenes-conceptos que se nos han ido apareciendo como revelaciones en el momento justo. Por eso el espacio no es descriptivo, sino que se convierte en espacio vivido, okupado y okupable. No es el resultado de un proceso sino la experiencia misma de construir una intimidad, precaria porque no dura y rara porque aparece en un espacio híbrido, público y privado. Nuestro lugar de trabajo se convierte en el lugar donde armamos parte de nuestra subjetividad, una residencia más donde depositar nuestro hogar y protegernos. Lo efímero y el desplazamiento (lo nómade) aparecen como nociones ligadas a estas intimidades cuir, que han ido emergiendo durante el proceso, nos han hecho que nos preguntemos en qué tipo de espacios aparecen estas intimidades, en que tránsitos, huecos o situaciones no-constantes.

galdetzera ea zein espazio, igarobide, tarte edo egoera iragankorretan agertzen diren intimitate kuirrak. Nolabait. esan dezakegu erakusketak berak bere burua sortu izan duela, apalategia, gure mahaiak eta artxibo, etxea, periferia, ausentzia eta gorputz kuirrak kontzeptuak abiapuntu legez hartuta. Lehen pausu horretatik aurrera, berbak eta gauzak agertzen hasi dira, ezusteko espektoak lez, elkar ukitu eta besteekin elkartzeko nahiarekin. Irudiek eurek elkarren arteko harremanak josi izan dituzte, beti ere korapiloaren bidez, elkar zeharkatu edo zulotzeko beharrik gabe, hein batean elkarren beharra dutelako. Halaber, irudi guzti hauek gure izatearekin lotzen dira, gure aztarna, marka dermiko eta oroitzapenekin. Era honetara, paretan aztarnategi moduko bat sortu da, gaurdaino habitaturiko espazioan zehar ere ibilbide ezberdinak sortu dituena.

Intimitate bihurrituak ez du ezagutza zehatz baten inguruan sakontzeko nahirik, ezta erradikala izateko guraria, eta bertokotzeko ezintasunak eraginda azalezkoa bilakatu da, ukitzeko azalera bat. Artxibotxuan hainbat liburu topa daitezke, zaila izanik identifikatzea hauetatik zer irakurri den eta zer ez. Pareta eta zorua festa bat dira, eta bertan Elena eta Pedro, baina baita ere Mainer, Adri eta Guillermo, Lara, Felix, Miguel, Chantal, David, Bego eta Puri, Ana, Luna eta Raquel bildu dira, guztiok batera, zein den zein, edo zer den zer jakin ezinik. Gure mahaietan 8 aste hauetan zehar aurkitutako hainbat testu daude. Halere, orain eta hemen ikusgarri dagoenaz haratago, beste hainbat sekretuzko intimitate ere badira, zeinak soilik ezagutu ahalko diluen ukitzeko eta afektatzen uzteko nahia duenak, irudiak eta gauza abandonatuak jarri eta kentzeko aukera duenak, mantapean bizi eta karameluari papera kentzen dionak.

La exposición se ha ido haciendo a sí misma, tomando como punto de partida la estantería, nuestra mesa y los conceptos de ausencia, archivo, hogar, periferia y cuerpos cuir. A partir de ahí han ido apareciendo las palabras y las cosas como espectros inesperados que no buscaban completar un mapa sino tocarse y encontrarse con otras. Las propias imágenes que aparecen han ido tejiendo intimidades entre ellas porque en cierto modo se necesitaban, sin atravesarse o agujerarse, sino mediante el enredo, el nudo. Estas imágenes asimismo se entrelazan con nosotras, con nuestros rastros, nuestras marcas dérmicas y memorias. De esta manera, se ha ido creando un rastreo por la pared, que desemboca en diferentes recorridos por el espacio que hemos habitado durante este tiempo.

Intimidades torcidas no profundiza en un conocimiento concreto, abandona deliberadamente la radicalidad ante nuestra imposibilidad por echar raíces y se vuelve superficial, una piel para tocar. El archivito deja disponibles los libros donde es imposible saber qué se ha leído y qué no. La pared y el suelo son una fiesta, estamos Elena y Pedro pero también Mainer, Adri y Guillermo, Lara, Felix, Miguel, Chantal, David, Bego y Puri, Ana, Luna y Raquel, todes juntes sin saber muy bien quién es quién y qué es qué. Nuestra mesa queda disponible con algunos textos que nos han encontrado en este tiempo. Y más allá de lo que hoy está aquí visible, quedan otras muchas intimidades secretas, secretos entre tú y yo, relaciones que solo conoce quien toca y quien afecta, quien pone y quita las imágenes y las cosas una vez abandonadas, quien se mete bajo la manta y quien desenvuelve el caramelo.

USAIN LASAIGARRI BAT

ELENA OLAVE DUÑABEITIA



Txikia nintzenean erromero alkoholez edozer senda zitekeela sinisten nuen. Tantatxo batzuk eskumuturrean, beste batzuk zapi batean, zeina kopetan edo lepoan jartzen nuen. Gorputz osoa, gela osoa, etxe osoa usain eta egoera lasai horrek biltzen zuen. Usainak sendatzen ninduen, baretzen.

Testuinguru artistikoan gaztelaniazko curador/curaduría edo ingelesezko curator/curating berbak euskaraz esateko kuradore/komisariotza hitzak erabili ohi dira. Jatorriz, kuradore berbak tutore juridikoa edo zaintzailea esan nahi du euskaraz. Testu honetan gaztelaniazko curar sendatu (euskarazko itzulpen literala) izango da, eta sendatzen duena, curator delakoa, zaintzailea. Haizea Barcenilla komisario eta ikerlariaren hitzak berreskuratuz, komisarioa lan (gure kasuan, gauza, irudi, esaldi, desira...) ezberdinen arteko harremanak baliatuz, eta hauek antolatzeke eta erakusteko modua aurkituz esanahi berriak sortzeko gaitasuna duen pertsonaia da. Interesgarria da hau kontuan hartzea, gerora aipatuko dudan bezala, zaintzaile-komisarioak istorioak eta historia bestelakoak agerrarazteko edo sortzeko ahalmena baitu zaintza-komisariotza prozesuaren bitartez.

Azpimarratu nahiko nuke ez dudala sendatu hitza begirada mediko eta patologizatzaile batetik baliatuko (hainbat aktibista eta teoriarari crisp-ek salaturikoa, Eli Clare adibide gisa), zeina normala eta naturala definitzeko erabilia izan den. Aitzitik, hurrengo lerroetan sendatzeko edo komisariatzeke forma disidenteetan pentsatzea gustatuko litzaidake.

Uharteko komisariotza ikerketa egonaldian, hainbat gauzaren artean, komisariotza disidentea edo pertsona kuirron espazioak eta istorioak sendatzeko bestelako moduez gogoetatu genuen. Halaber, gorputz bihurritu, disidente eta kuir legez egunerokotasunean zeharkatzen eta inguratzen gaituzten materialekin zer nolako sendaketa ariketa egin genezakeen pentsatzeko tarte hartu genuen.

Artxibo kuirraren inguruan irakurtzen nabilela, Ann Cvetkovich ikerlariaren liburu batera heldu nintzen. Momentu horretara arte irakurritako testuetan lesbianen artelan eta idatzi teorikoen inguruko erreferentzia gutxi topatu nituen, eta ausentzia horretan arakatu nahian heldu nintzen "Sentimenduen artxibo bat" lanera. Bertan irakurri nion Cvetkovich-eri kuir komunitatean traumak esperientzia kolektibo gisa pentsatzeak izugarrizko garrantzia duela. Adierazpen horretatik abiatuta "sendatze disidentearen" inguruan hausnartzen hasi nintzen, lerro hauetan apur bat garatzea gustatuko litzaidakeen ideia; modu nahiko ireki eta espekulatiboan beti ere, sendaketa prozesu hau modu kolektibo eta norantza anitzekin ulertu

nahiko nukeelako.

“8 aste: intimitate bihurrituak” erakusketa efimeroa elikatzeko prozesuan hainbat ideia eta irudi agertu ziren, eta hauetako hainbatek trauma kuirrarekin harremana zuten. Bakardadea, beldurra, desagerpena, iraganaren transmisio eza, etxearen ideiarekiko sentimendu arrotzak, isolamendua, dolua, gaixotasuna, patologizazioa eta beste hainbat nozio agertu zitzaizkigun, elkarren artean guztiz lotuta. Guzti hauek trauma kolektibo baten ezaugarriak dira (guztiz unibertsalak ez direla badakigun arren). Trauma kuir deituko ditugun hauek frustrazioa eta mina sentiarazten badigute ere, gure artean antzemateko eta geure buruaren, identitatearen, existentziaren inguruan kontzientzia hartzeko ere balia ditzakegu.



Sendatzea, maitatzea da, maitatzeak zaintzea dakarrelako. Horregatik, maitasun ekintza gisa ulertu nahiko nuke sendaketa edo komisariotza disidentearen prozesua, zeinak bestelako egiteko denborak eta moduak hartu beharko lituzkeen kontuan. Zentzu horretan, garrantzitsua iruditzen zait elkarrekin pentsatu ahal izatea nola sendatu gure traumak, oroitzapen edo historia(k), guzti hauen artean existitu daitezkeen desberdintasunak kontuan harturik. Era berean, hau egiteko espazio edo lekuak zeintzuk izan daitezkeen zalantzan jartzea ere ezinbestekoa da; sendatu-zaintzeko zilegitasuna noiz, non eta zergatik izan dezakegun birpentsatzea, alegia.

Nolanahi ere, bestelako komisariotza ariketa batzuek bezala, sendatze kuirrak ere berrantolaketa bat eragin dezake, irekiera bat. Alde batetik, objektu eta gauzekiko dugun lotura afektiboa kontuan hartuz senda ditzakegu hainbat espazio. Material, gauza edo testu hauek, gorpuztu nahiko genituzkeen ideia edo oroitzapenekin batera sor ditzaketen lotura edo tentsioetan pentsatzea izan daiteke lehendabiziko urratsa. Bestetik, espazioari dagokionez, honen nolakotasunak eta izaera kontuan hartzea garrantzitsua da (kubo zuri bat? instituzio publiko bat? espazio abandonatu bat? espazio autogestionatu bat? etxe bat?).

Baina zeintzuk dira orain arte modu errepikatuan aipatu ditudan objektu, material edo gauza horiek? Sara Ahmedek Fenomenologia Queer liburuan aipatzen du gorputz kuirrak bere sostengua, edozein dela, galtzen duenean desegin daitekeela, eta, hortaz, objektuak sostengu eta gorputz kuirren existentzia bermatzeko oinarriak izan daitezkeela. Ahmeden ideiak jarraituz, uler dezakegu objektu edo gauza bat agertzeko moduak bihurtzen duela hura kuir, hots, agerraldia koherentea ez izatean, porrota eta desorientazioa sentitzerakoan, edo espero ez den zerbait agertzean bilakatzen dela zerbait edo inor kuir.



L'amour est enfant de Bohême qui n'a jamais jamais connu de loi: omoh anti facho, Queer artxiboa? dokumentu-funtsari dagokion eranskailua, (MNCARS), ca 1990. Fefa Vilak komisariatu zuen *Gu beti hemen, lehenengo lerroan! LGTBI_Q adierazpen politikoak eta kulturalak egiten (1977-2021)* (Irunea, 2021) erakusketatik ateratako fotokopia.



DÉJAME IR. DÉJAME

INTIM
NÓM-


KUIR
através | t
To

Zerua
eta gure
arteam bada
zerbait

estabita
soilik
bizi daiteke-
ena



MIDAD
A DE



transversal

RCER

PODEMOS VOLVERNOS (...)

debido al contacto que tenemos
con otras personas así como objetos,
como un contacto que determina
nuestras orientaciones hacia el
mundo y les da forma.

traba


|
trabs

|
treb (indoe.)

morada,
vivienda,
habitación

habitar el
problema





Halatan, komisariotza disidente horretan pentsatzean, interesgarria litzateke objektuez aparte (gorputzak, testuak...), ideiak, oroitzapenak edo mamuak prozesuan zehar nola agertzen diren aztertzea.

Halere, badira esperientzia batzuk, eta ondorioz, material eta objektu batzuk bizitza ezberdinetan errepika daitezkeenak. Horren kontzientzia hartzetik abiatuta, esaterako, gureak ez diren espazio intimoetan ere jardun dezakegu, intimitatea osatzen duten material kuirrak beste testuinguru batzuetan agerraraziz. Gakoa da; zeintzuk izan daitezke existentzia kuirra ahalbidetu dezaketen gauza edo objektu/materialak? Zeintzuk hauek intimitatearen testuingurutik at kokatzearen albo kalteak? Sendaketa prozesuaren bitartez galdera hauei erantzun behin-behinekoak eskaini diezaiekegu.

Ikuspuntu horretatik abiaturik, planteatzen den sendaketa prozesuan objektuekin eta bestelako materialekin ditugun loturak eta emozioak identifikatu beharko genituzke. Horren ostean, ariketa berdina egin beharko genuke okupaturiko espazioarekin, ekosistema kuir berri baten oinarria izan daitekeen kontakizuna sortze aldera.


Guzti hau espekulazio ariketa bat baino ez da, beraz, esan gabe doa asmakizun bat baino ez dela, jolaserako eta zaintzarako proposamen bat, ondorio gisa sendaketa eragin dezakeena, edo ez. Hala ere, zaila iruditzen zait guzti hau intimitatearen saretik at gertatzea, halako prozesuak suertatzeko aukera duinak instituzioetan existitzea, alegia.

Denadela, gaur badakit erromero alkoholakez duela mina desagerrarazten, ezpada gorputzak baretzen eta loa ahalbidetzen. Badakit gure mina inguru zisheterosexualetan (politika eta egitura heterosexual, kolonial eta kapitalisten ondorioz) ulertzea zaila dela, dolu prozesua bakartiegia, beldurra handia. Baina, badakit behin-behineko lasaitasun hori ere merezi dugula; elkar ukitu, ukituak izateko prest sentitu, ukituak eragiteko zilegitasuna izan.

Geure esperientziak, traumak, sendatzeko erabakia hartzea usain lasaigarri hori hedatzeko beste metodo bat baino ez da, komisariotza disidentea izan zitekeen horretan pentsatzeko beste jolas inproduktibo bat. Besteak zaindu ahal izateko ariketa idatzi bat baino ez da hau, besteak ere ni naizelako. Nitaz idaztea gutaz idaztea ere badelako, gu horren baitan hainbat ertz badira ere.

OSCILAR COMO METODOLOGÍA

PEDRO MERCHÁN MATEOS



Llevo un mes un poco atascado con la escritura. Sin saber muy bien a qué aferrarme o a qué objeto aplicar la lógica extractivista de ciertos saberes, normalmente universitarios por lo supuestamente universal, y hacerlos legitimadores académicos de los que irremediablemente vengo y a los que no puedo renunciar. He estado pensando en qué escribir casi medio año después del proyecto que llevamos a cabo en el Centro Huarte, por qué hacerlo y cómo hacerlo.

Sobre el *cómo*, he decidido renunciar a la linealidad y la progresión continua de los hechos de tal manera que no hay específicamente un antes y un después concretos. El texto solo pretende estar aquí. En cuanto al *por qué*, el interrogante podría resolverse respondiendo que simplemente asumimos el compromiso de hacer esta publicación. Entonces tendría que preguntarme *por qué* producir y me gustaría responder, convencido, que esto es un ejercicio de actualización en el sentido de Benjamin de reclamo de las oportunidades perdidas —fracasadas— del pasado. Así que aquí quedan actualizados una serie de hechos, sobre todo deseos, pasados, presentes y futuros. Por último, el *qué*. Hace poco una compañera me dijo que en el momento en el que no supiera qué escribir, describiese, porque la teoría nunca va a agotar los objetos y menos las imágenes; y en el describir ya se produce significado porque se revelan nuestras relaciones con lo descrito. Así que me quedaba por decidir *qué* objetos, *qué* imágenes, *qué* cosas describir y *qué* relaciones revelar. He estado pensando en *cómo* conformamos las narrativas propias y en *cómo* al darnos sentido e historia siempre hay cosas que escapan a eso. Algo similar a lo que Barthes llama *punctum*, cosas con la autonomía suficiente para escapar a esas narrativas y agujerearnos. Lo que sigue es la descripción de esa pegajosidad inesperada de ciertas cosas para pensar en aquello que se escapa de lo simbólico pero por motivos materiales persiste de alguna manera. Me he propuesto describir de manera más o menos desordenada algunos objetos y deseos pegajosos, latentes y discretos que son una maraña de cosas. Me parecía justo y reparador pormenorizar ciertos hilos de los que pendemos —de los que pendo— a los que nos sujetamos —me sujetan— como objetos de la subjetividad.



UN COLADOR

Oscilar contiene la raíz sánscrita *ōs-* que significa boca. De ahí el latín toma la misma raíz para boca pero también para puerta, *ōstium*, compartiendo

en realidad la característica formal del agujero (de ahí viene orificio en castellano) y de límite entre dos contextos (de ahí orilla u orla). También contiene la raíz del protoindoeuropeo *kel-*, que se relaciona con las acciones del cubrir y el proteger. De ahí por ejemplo *cella* en latín, que originalmente no se refería a la habitación como tal sino al almacén de granos lo cual tiene mucho que ver con raíces derivadas de *kel-* que se refieren al saco, *kul* en polaco, y a la bolsa, *kuliks* en prusiano antiguo . Y aunque todo pueden ser tentativas de dar un sentido a esa historia propia a través de ciertas herencias léxicas, quizás la pegajosidad de ciertas palabras reside en su capacidad de mantener —pegadas— relaciones discretas entre los usos y desusos de sus significados. Porque oscilar me permite vincular lo agujereado de Barthes con las bolsas transportadoras de Ursula K. Le Guin, con la recolección y muy discretamente con el comisariado como bolsa agujereada.

UNA BOLSA DE CAMELOS

En realidad, oscilar se relaciona directamente con la palabra latina *oscillum*. Los *oscilla* eran figurillas con forma de cara o máscara realizadas en barro cocido o mármol, que se colgaban en los árboles frutales como ofrendas a distintas divinidades romanas. A partir del movimiento que describían con el viento, se empezó a utilizar *oscillare* para referirse a ese balanceo o titubeo caótico, aunque la física clásica lo haya tomado para hablar del movimiento oscilatorio. Según Wikipedia “un movimiento oscilatorio se produce cuando al trasladar un sistema de su posición de equilibrio, una fuerza restauradora lo obliga a desplazarse a puntos simétricos con respecto a esta posición”. La física probablemente se esforzaría en describir el sistema *oscillum*-árbol para encontrar precisamente esos puntos simétricos a los que avanzan los pequeños tótems que penden de hilos de lana y a su vez de ramas. Pero también podríamos asumir esa complejidad del sistema como una desigualdad entre roces. Pensarnos entonces como pequeños objetos ancestrales, o mejor, como pequeñas arqueologías donde reconstruir las fluctuaciones, vacilaciones, balanceos y agitaciones hacia los otros. Ceder por tanto a las desigualdades de nuestros propios sistemas, asumir que no hay un punto de equilibrio al que volver pues cada hilo del que pendo va cambiando —de longitud, de grosor, de rama, de elasticidad, de resistencia— y con ello las posibilidades de alcanzar ciertas cosas o de chocarme con otras figurillas. Me encuentro pensando en una oscilación que vengo repitiendo desde hace tres



años hasta ahora sin regularidad ni simetría específicas: guardar envoltorios de caramelos. Mi repertorio de plásticos y papeles no responde a la lógica de la colección sino a una del balanceo y del roce. Curiosamente estas fundas nos protegen de la dulce pegajosidad de los caramelos. Dentro de ellas sucede lo sucio y lo espeso, la melosidad y la densidad de las intimidades que tratamos de explicar en el Centro Huarte y acabamos exponiendo en *8 semanas: intimidades torcidas*. Casualmente, esta exposición la veo ahora, seis meses después, como una exhibición sobre lo adhesivo. Compuesta en su mayoría por post-its, cinta de carroceros, cinta adhesiva y pegatinas, todo superficies de contacto que renunciaban a la profundidad de la perforación expositiva en favor del pringue y la convivencia.

ESCONDERSE, DE DÍA O DE NOCHE

Pienso en la oscilación como el movimiento de los bolillos, precisamente porque tras un momento crítico luego todo encaja: los caramelos, las cortinas, las mantas, lo bordado, las paredes, los mapas... Por eso todo lo no vivido nos afecta, porque aun así es susceptible de enredarse en este tapete. La oscilación es un diario de las distancias que guardamos, del vaivén y la ligereza entre las cosas que recolectamos para curar un espacio, sea nuestra habitación, nuestro silo repleto de grano o la sala de exposiciones. Suspendidas y oscilantes entre contextos y tiempos, creo que el ejercicio de curar un espacio tiene que ver con una doble contradicción: la de exponer —sacar las cosas de un contexto y exhibirlas— y la de esconder. Pender y enredar. Tensar y ablandar. Hacer del espacio una cáscara, una funda, una manta, una bolsa torpe, una cesta de mimbre o una carpeta donde rozarnos con las cosas, pulular entre los otros, ceder la luz y errar en el secreto de ese cerramiento. Exponer para ocultar.

Este texto parte de una cuartilla con los versos de Irati que abren el texto. La propia cuartilla ha ido oscilando entre cuadernos, agendas, suelos y paredes. Se ha ido pegando y guardando a/en diferentes superficies. A veces la carpeta transparente a la vista de todos, a veces la pared de mi habitación casi solo para mi disfrute y a veces en el suelo o en una mesa o en una foto digital oscilando entre los otros, entre los otros tiempos, los objetos, las cosas, las palabras, las historias, las personas.

Esta publicación forma parte de la Residencia de investigación curatorial que tuvo lugar entre el 23 de septiembre y el 18 de noviembre de 2021 en el Centro Huarte.

Argitalpen hau Komisariotza ikerketa egoitzaren proiektuan sarturik dago. Egoitza Uharte Zentroan egin zen, 2021eko irailaren 23tik azaroaren 18ra bitarte.

Proyecto / Proiektua

ukitu (Elena Olave / Pedro Merchán Mateos)

Textos / Testuak

ukitu (Elena Olave / Pedro Merchán Mateos)

Imágenes / Irudiak

Pedro Merchán Mateos

Diseño y maquetación / Maketazio eta diseinua

Pedro Merchán Mateos

Edición / Edición




Huarte

ARTE GARAKIDEXO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORANEO

Calvario, 2. 31620
Uharte Huarte | Nafarroa Navarra
t. 948 361 457 | centrohuarte.es

DL/LG NA 2379-2022





||
Huarte

ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORANEO